

# GURE ZAPATEN BENETAKO KOSTUA FITXA TEKNIKOA

Bidaia hiru oinetako-marka globalen  
hornidura-katean barrena



Campaña  
Ropa Limpia   
Clean Clothes  
Campaign

*Setem*


Gure zapaten benetako kostuak hiru oinetako-marka handiren ekoizpena eta hornidura-katea aztertzen ditu:



PRADA

GEOX

**Tod's, Prada eta Geox.** Txosten honek ezagutzera ematen du nola ekoizpen bideak aldatzen diren etengabe, testuinguru batean non kapitalaren mugikortasuna kanpo-erakunde baten esku uzteko estrategiekin batera inguru perfektu bat sortu duten aldiro-aldiro ekoizpena kontsumitzaileen gustu eta poltsikoetara molda dadin. Bitartean, soldatek eta lan baldintzek okerrera egiten jarraitzen dute. 2015ean 23.000 milioi pare ekoizita<sup>1</sup>, moda lasterreko produktuak kostu txikian eta, aldi berean, luxuzko salgaiak egitean datzan dinamika baten adibide argia dira oinetakoak. Markak aberastutako eliteek dituzten merkatu anitzetara sartu ahal izateko ziurtatzen duten metodo bat dira, Europan edota garatzeko bidean dauden ekonomietan.



**> 2015ean 23.000 milioi pare ekoizita**

Aldatu zure zapatak-ek Italian, Txinan, Europa ekialdean, Indian eta Indonesian batera egindako azken ikerlanek<sup>2</sup>, egiaztatu dute oinetakoen ekoizpena prozesu intentsibo bat dela lanari dagokionez, entrega epe laburretara eta prezio oso txikietara lotuta, milioika langileren lan-baldintzak eta bizitza beheratzen dituen, dauden lekuan daudela. Dinamika kaltegarri honek Europari ere eragin dio, ekoizpenaren fase garrantzitsuen itzulera eraginez. *Gure zapaten benetako kostua* txostenak, *Nuovo Modello di Sviluppo zentroak* eta Aldatu zure zapatak-ek argitaratuta, gorantz doan joera hau eta berekin doan problematika guztia aztertzen du.

Berlokaltzea (*reshoring*) kontzeptuak garai batean Asiara (edo lan kostu txikiak zituzten beste herrialde batzuetara) eraman ziren ekoizpen jardunak jatorrizko herrialdeetara itzultzea esan nahi du. Fenomeno honengatik herrialde kaltetuenak Europa ekialdekoak dira, Asian baino soldata are eta txikiagoak izanik. Europa ekoizteko erakargarria da berriro ere produktibitatearen gehiagotzeari eta beste zenbait faktoreri esker, besteak beste, soldata-moderaziozko politikak, lan malgutasun handiagoa, irazpen librea aplikatzeko erraztasunak eta lan harremanen ahulezia. Gainera, enpresek aprobetxatzen dute langileriak oso ongi ezagutzen duela tradiziozko fabrikazioaren sistema haien produktuei ukitu eskusibo bat gehitzen dien kalitate faktore bat izateko. "Italian egina" edo "EBean egina" etiketa kalitatezko produktu eta lanarekin lotu da betidanik. Baina, non dago haren balio erantsia Europako Batasunean diseinua besterik egin ez bada eta oinetakoen fabrikazioa, berriz, Serbia, Albania, Birmania edo Indonesian (zenbait herrialde aipatzeagatik) miseriazko baldintzetan lan egiten duten gaizki ordaindutako langileek egin badute, edo Italian, soldata iraingarriak eskaintzen dituen azpikontratazio sistema baten bidez?

**“Enpresa global handiendako ez da garrantzitsua produktu bat non fabrikatu den. Aski dute beren modeloetara egokituko diren eta produktuetan Made in Prada edo Made in Tod's estanpatzeko gai izango diren ekoizpen kateak prest izatea”<sup>3</sup>**

1 The World Footwear Yearbook 2016

2 Arropa Garbia Kanpainaren webguneak 2015 eta 2017 artean argitaratutako txosten guztiak dauzka: <http://ropalimpia.org/es/cambiuszapatos/materialespropios/>.

3 Luxuzko oinetako-marka baten langile bati eginiko elkarrizketa.

# LUXUZKO OINETAKOEN EKOIZPEN KATEAK


Zapata pare bat ekoizteko prozesua modeloaren diseinuarekin hasten da, gainaldearen fabrikazioarekin<sup>4</sup> eta atal guztien muntaketarekin jarraitua. Txostenak aztertzen dituen hiru markei dagokienez, diseinuaz beti arduratzen dira haiek eta hiru ekoizpen sistemekin gobernatzen dira: barnekoa, kanpoko edo bien konbinazio bat.

**Erabat internalizatutako ekoizpen** sistema ez da oso ohikoa eta batzuetan kalitate edo kostu arrazoiengatik gauzatzen da. Tod's metodo horren adibide bat da, kalitate handiko modeloak bere instalazioetan fabrikatzen baititu. Geox antzeko kasu bat da, Serbian duen fabrika kalitate txikiko eta ertaineko oinetakoekin, nahiz eta ildo hau munduan egiten duen ekoizpenaren %3koa soilik izan.

Oso ohikoa da **ekoizpena erabat kanpora ateratzea** eta, horretarako, oinetako fabrikak azpikontratatu behar dira prozesu osoaz ardura daitezen. Hala ere, sistema horrek berarekin hornikuntza kontratu bat marka bakar batekin gauzatzea ekartzen badu ere, egiatan askoz gehiagok hartzen du parte: markarekin harremanetan egoten den enpresa "zuzkitzaile nagusia" da eta gainerakoak, berriz, "azpikontratatistak" dira<sup>5</sup>.

Geoxekin lan egiten duten hornitzaile nagusiak atzerrian dira, Asian batez ere, anitz Europa ekialdean kokaturik egon arren. Tod's-en hornitzaile handiak, ordea, Italian kokaturik egoten dira batez ere, Las Marcas, Abruzos eta Apulia probintzietan. Enpresa honek Hogan Rebel markarekin hornitzaile errumaniar handi batzuen bitartez merkaturatzen diren zapatak ere ekoizten ditu. 2015a arte Pradak Stella International Holding talde txinatarrarekin zituen ekoizpen harremanak, oinetako fabrikak Txina, Vietnam, Indonesia eta Bangladesh-en izanik, baina Asiako toki batzuei eragiten dien lehiakortasun pixkanakako galeraz geroztik, konpainiak berriro Italian eta Europa ekialdeko herrialdeetan, batez ere Errumanian, Serbian, Bosnia-Herzegovinan eta Turkian, ekoiztearen alde egin du.

## KANPORA ERABAT ATERATAKO EKOIZPEN KATEA



<sup>4</sup> Gainaldea zapataren goiko aldea da.


<sup>5</sup> Italian, 1998ko ekainaren 18ko 192 Legeak agintzen du ekoizpena azpikontratatu nahi duten hornitzaileek eskaera egiten duen bezeroari baimen bat eskatu behar diotela.

## KATE NAZIONALAK ETA NAZIOARTEKOAK GURUTZATURIK



**Oinetakoen ekoizpen kate mistoa** ere oso zabaldurik dago. Sistema honetan fase batzuk marken edo enpresa taldearen beraren ekoizpen gunetan egiten dira, eta beste batzuk, azpikontrataturako fabriketan. Tod'sek, esaterako, nahiago du gama handiko oinetakoen gainaldean ekoizpena kanpora atera eta akabera bere gain hartu. Gama ertaineko zapaten gainaldee dagokienez, - Hogan markaren bitartez merkaturatuak - enpresa taldeak Albanian duen instalazio batean fabrikatzen dira eta muntaketa, berriz, kosta adriatikoan zehar kokaturiko azpikontratista italiarrei dagokie.

## EKOIZPEN KATE MISTOA, HOGANEN KASUA



# PREZIOAK ETA DESBERDINTASUNAK

Luxuzko merkatuaren berezko ezaugarri bat produktuengatik ordaintzen den prezioaren eta haien benetako balioaren artean handituz doan desoreka da. Hala ere, diferentzial hau bere ekoizpenean esku hartzen duten aldean ez da zuzen banatzen. Neurri handi batean, bi parteei egokitzen zaio soilik: banatzaileari eta markari, oro har azken prezioaren %60 batekin geratzen direnak. Mekanismo honek sortzen duen dinamikak aberastasun eta botere gehien daukanari mesede egiten dio beti azkenean, **marketing** bezalako faktoreari esker, merkatu berrietara jotzeko gaitasunari eta hornitzaileen gaineko kontrol areagotzeari, eta azken hauek prezioak txikiak eta entrega epeak estuak direla salatzen dute.

Markek beren hornitzaileei ordaintzen dizkieten prezioak lurralde testuinguruaren arabera ere aldatzen dira. Salento hegoaldean, adibidez, Eugenio Romano abokatuaren aburuz, Tod'sek eskaintzen dituen prezioak "Las Marcas eskualdeko oinetako-fabrikatzaileei jardun berberen truke ordaintzen zaizkien prezioak baino %25 txikiagoak dira gutxienez".<sup>6</sup> Hau da Romanoren ondorioa: "tratu ezberdintasun honen jatorria Tod'sen merkataritza taktika berezi batean datza, goi mailako kargudunek behin baino gehiagotan justifikatuta, Salentoko enpresek "malgutasunez" lan egiten dutela kontsideratzen duena".<sup>7</sup>

"...Tod'sek zeregin bakoitzaren truke ordaintzen duenarekin ezinezkoa da kostu guztiak ordaintzea. Beraz, anitzetan, enpresek ekonomia informalarri esker bukatzen dituzte eskaerak, gainaldeak etxean eskuz josten dituzten emakumeei lana emanez. Tarifa pare bakoitzeko 0,7-0,9 eurokoa da. 7-9 euro irabazten dute 12 lan ordurengatik".<sup>8</sup>



Keope-ren jabea

Prezio txikien izenean, 2013an Italiako Kontratista Federazioak hitzarmen oso kaltegarri bat sinatu zuen langileentzat CISAL federazio sindikalarekin: 710 euroko oinarrizko soldata finkatzen zuen hileko kalifikaziorik gabeko langilerentzat. Kantitate hori 600 euro garbira murrizturik geratzen da hilean Gizarte Segurantzari kotizazioa eta zergen kenketaren ondoren (%20 batez besteko bat). Zenbateko hori, Italiako Estatistika Institutuak (ISTAT) diotenaren arabera, pobrezia atalase absolutua baino txikiagoa da Italiako eskualde guztietan (baita Salentokoan ere), familia tamaina zein den ere.<sup>9</sup>



Toskanako sindikatuak

"Tod'sen hornitzaile izandako enpresa batzuek porrot aitortpena egin dute. Beste alde batetik, sindikatuak diote: "luxuzko artikulu marka anitzek krisi ekonomikoaz aprobetxatzera jotzen dute eta ongi kualifikatutako enpresa txikiak azpikontratista modura lan egitera behartzen dituzte prezio oso txikitik eta horrek haien biziraupena etorkizunean kolokan jartzen du."<sup>10</sup>

## BELTZEAN EGINDAKO LANA ETA TAILER ILEGALAK

Marka handiek hornikuntza kontratuak hornitzaile gutxirekin gauzatzen badituzte ere, hornikuntza katean egitan parte hartzen duen enpresa kopurua askoz ere handiagoa da hornitzaile horietako anitzek ekoizpenaren parte bat azpikontratatzeko dutelako. Sistema

<sup>6</sup> Eugenio Romano abokatuak 2013/05/31n jarritako zitazio-autoa

<sup>7</sup> Salento Apulia eskualdeko lurralde bat da, Italia hegoaldean, oinetako sektoreari esker oso aberatsa zena. Gaur egun, langabezia tasa handia du eta horrek presioen aurrean enplegua oso ahula izatera bultzatzen du, eta, hortaz, izaera malguago bat izatera.

<sup>8</sup> Marilù Mastrogianni, "Keope: ecco il sistema Tod's in Salento. Nero su bianco. Tra lacrime e sangue". Il tacco d'Italia egunkari elektronikoa (2013ko azaroaren 12a).

<sup>9</sup> Pobrezia atalase absolutua identifikatzeko, familia kideen eta bizitokiaren arabera, ikusi <http://www.istat.it/it/prodotti/contenuti-interattivi/calcolatori/soglia-di-poverta>.

<sup>10</sup> Pistoia probintziako Filctem Cgil eta Uiltec Uil sindikatuak izenpetutako iruzkina da, 2014ko ekainean, Pradak azpikontratutako Calzaturificio Parlanti hornitzailearen itxieraz geroztik, "Chiude il Calzaturificio Parlanti, 38 licenziamenti" tik hartuta. Il Tirreno (2014ko ekainaren 7a).

hori sustatzen duten arrazoietako batzuk entrega epe oso motzak eta prezio oso txikiak dira. Prezioek behera egiten dute hornikuntza katearen barnean mailak jaitsi ahala, maila bakoitza hurrengoaren lepotik zerbait erdiesten saiatzen baita eta bezero enpresarekin itundutako prezioaren parte bat berarentzat hartzen du. Testuinguru honetan, bi irabazle izaten dira: markak, prezioak ezartzeko ahalmena baitute, eta tailer txinatarrak, Italiako manufaktura barruti guztietan ugaritzen ari direnak, oinetakoen alorrean ere bai. Las Marcas eskualdean, adibidez, mota honetako 800 establezimendu baino gehiago direla kalkulatu da.<sup>11</sup>



Basea Las Marcas eskualdean duen enpresa baten jabea

“Antzina, enpresek puntako lanari aurre egiteko edo pixka bat aurrezten saiatzeko soilik enplegatzen zituzten etxetiko langileak, baina orain anitzek aukera gehiago dute. Pertsona horiek enplegatzen jarrai dezakete, baina gutxiago ordainduz, Errumania, Tunisia edo Txinakoekin lehiatzen baitira, eskualdean diren enpresa txinatarrak balia ditzakete -merkatuko gainerakoak baino %50 bat gutxiago balio dute- edo ekoizpen jardun horiek atzerrira aterata”.<sup>12</sup>

Ikerlanean bildutakoaren arabera, komunitate txinatarrak ez da tailer ilegalak antolatu eta kudeatzen dituen bakarrik. Las Marcasen polizia hainbat nazionalitateetako 23 pertsonari lana ematen zieten tailer ilegalak aurkitu zituen, zolak fabrikatzen zituzten pakistandar batzuk barne<sup>13</sup>. 2010a arte, Geoxek bere biltegien kudeaketa immigranteak ilegalki enplegatzen zituen garraio kooperatiba bati azpikontratatu zion. Zorionez, ADL (Associazione Diritti dei Lavoratori) sindikatuari esker, kooperatiba honetako langileak antolatu ahal izan ziren eta haien egoera hobetu egin da.

Alabaina, 2016ko udan, Geoxek Serbian guztiz berea duen fabrikako langile batzuk kexatu egin ziren osasun eta segurtasun baldintza txarrez, hitzezko abusuez, lan kontratu ezaz eta beste hainbat lan-urratzez<sup>14</sup>. Urte bereko urtarrean, Geoxek Vranje-n fabrika bat ireki zuen gobernu serbiarrak emandako itzuli behar ez zuen funts bati esker, 11 milioitik gorakoa. Diru laguntzaren truke, Geoxek 1.250 pertsona kontratatu eta gutxieneko soldata baino %20 gehiago ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Hala ere, abenduan langileriak Geoxek ez zuela azken konpromiso hau betetzen salatzen jarraitzen zuen. Langile batzuen zintzotasunari esker, Serbiako hedabideei eta Aldatu Zure Zapatak kanpainak, Arropa Garbia Kanpainako talde batzuek eta sindikatu batzuek eginiko presioari esker, gauzak aldatzen ari dira. Dena den, hartu behar diren neurri zuzentzaileen zerranda luzea da oraindik.

Jendearen ezagutza edozein aldaketa prozesuren lehen urratsa da. Hala ere, *Gure zapaten benetako kostua* argitaratu aurreko ikerlanean zehar, hitz egiteko beldurrak presente jarraitzen duela konturatu ginen. Elkarrizketatuak izateko prest egonen ziren langileak edo enpresa hornitzaileak aurkitzea bereziki konplikatua izan zen, eta beti anonimatuaren geratzea eskatu zuten. Arrazoi ofiziala kontratuetako konfidentzialtasun klausulak ziren, baina atzean marka handiekin lana edo kontratua galtzeko beldurra sumatzen zen.

## GOMENDIOAK ETA PROPOSAMENAK

Oinetakoen hornikuntza katean zehar eginiko jarraipenak agerian uzten du txosten honetan ikertutako hiru markak beren zapatak ekoizten dituzten pertsonen funtsezko giza eta lan eskubideak errespetatzetik oso urrun daudela. Mundu mailako ekoizpen

11 Fondazione Censis. “Analisi sul fenomeno del lavoro irregolare e sommerso nell’ambito territoriale della regione Marche”, 2006.

12 Fondazione Censis, Ibid.

13 “23 lavoratori in nero nei laboratori cinesi e pakistani”. Civitanonline.it (2011ko martxoaren 18a).

14 Radoman Iric, “Cipele u pelenama”. Vranjske Novine (2016ko uztailaren 14a).

kateak balio-galera lehia bat sustatzeko diseinaturik daude eta lan eskubideen urratze orokortuak eragin ohi dituzte. Hori are egiazkoagoa da hornikuntza kateen gainean kontrol publikorik ez dagoenean, hortaz, opaku egoten jarraitzen dute eta zapatak erosten dituzten pertsonak ez dira urratze horietaz kontziente. Beharrezkoa da herritarrek eta Europan ongi informatuta dauden kontsumitzaile taldeek, hedabide independenteekin eta nazioarteko elkartasuneko sareekin batera, jokaera aktibo bat har dezaten eta enpresek legeria nazionalak, nazioarteko konbentzioak eta NBEren Enpresen eta Giza Eskubideen Printzipio Gidariak errespetatzeko duten erantzukizuna betetzen dutela berma dezaten.

## Zehazki, markei (Tod's, Geox eta Prada barne) eta banatzaileei hau eskatzen diegu:

**1 Osasun eta segurtasunari buruzko legeak eta askatasun sindikalerako eskubidea** hornikuntza kate osoan **zehar errespetatzen direla berma dezaten.**

**2** Hornikuntza kate osoan **zehar soldata duinen ordainketa berma dezaten.**

### Soldata duinen ordainketari buruzko eskaerak:

1. Soldatek indarrean dauden hitzarmen kolektibo nazionalak diotena bete dezaten.
2. Europa ekialdeko herrialdeetan diren soldata hutsalen aurka borrokatzeko berehalako lehen urrats gisa, jasotakoa batez besteko soldata nazionalaren %60 gutxienez lortzeraino handitzea<sup>15</sup>
3. Asian soldatak Asia Floor Wage Alliance-k (AWFA) finkatutako mailaraino igotzea<sup>16</sup>

**3 Askatasun sindikala eta negoziazio kolektiborako eskubidea** hornikuntza kate osoan **bermatu eta sustatzea.**

**4 Hornikuntza kateen eta enpresa politiken gardentasun osoa bermatzea lan** eskubideak ekoizpen prozesu osoan errespetatzen direla ziurtatzeko.

**5 Enpresen jardunek hornikuntza katean giza eskubideen gainean izaten dituzten eraginen berri urtero ematea,** beharrezko diligentiako prozesuei, aplikatutako politikei eta jardun horien ondorio negatiboak konpontzeko neurrien eraginkortasunari buruz txosten xehatuen bitartez, adierazle neurgarriak erabiliz.

Gardentasuna zehaztasunez: enpresek giza eskubideak behatzeko eman behar dituzten datuak. Enpresek eman behar duten informazio zehatza:

4. Hornikuntza katearen trazabilitatea: ekoizpen tokia / instalazioen helbideak, bitartekariak, inportatzaileak eta markak.
5. Instalazioaren enplegu datuak: fabrikari aritzen den langile kopurua eta gizonen eta emakumeen ehunekoak; kategoria bakoitzeko batez besteko soldata, aparteko orduen hileko batez bestekoa, emandako prestazioak, sindikatu ofizialen edo eta hitzarmen kolektiboen presentzia, lan harreman motari buruzko informazioa (ehunekoetan), lan ikuskapenen eta ikuskaritzen txostenak, langileen prestakuntza eta istripuen erregistroa.
6. Instalazioaren ekonomia datuak: fakturazioa, saldutako pieza kopurua, markek fabrika bakoitzetik lortzen duten produktuen ehunekoak eta prezio egitura xehatua.
7. Produktuen gaineko informazioa: erabilitako substantzia kimikoak, erdietsitako ziurtagiriak eta ziurtapen erakundeak.

Datuak formatu eskuragarri eta erabilgarri batean argitaratu behar dira parte guztiendako.

15 [http://ropalimpia.org/adjuntos/informes/Ficha\\_Vidas en la cuerda floja.pdf](http://ropalimpia.org/adjuntos/informes/Ficha_Vidas_en_la_cuerda_floja.pdf)

16 <http://asia.floorwage.org/resources/wage-reports/asia-floor-wage-figures>

Italiako Gobernuari, EBri eta gainerako gobernu nazionaleri hau eskatzen diegu:

- 1** Lan arauen behaketa eta inplementazio eraginkorra indar ditzaten, hornikuntza katearen alde ahulenetan batik bat.
- 2** Immigrazio eta lan baimenei dagozkien politikak eta legeak aldatzeko, immigranteak lanean ilegalki aritzera behartzen dituzten mekanismoak ezabatzeko helburuarekin, esplotatuak izateko eta lan baldintza iraingarrietan aritzeko arriskuan baitaude.
- 3** Ekoizpena tokitik eraman eta atzerriko inbertsioak erakartzeko enpresen ekimenendako laguntza guztiak lan eta giza eskubideen errespetu osoaren mende egon daitezen.
- 4** Enpresa guztiak beren fabrika eta hornitzaile guztien zerrenda argitaratzera eta urtean behin gutxienez eguneratzera behar dezaten.
- 5** Enpresa transnazional guztiei beharrezko diligentzia plan bat, nahitaez egitekoa, aplikatu dezaten galdegiteko, beren jardunek lan eta giza eskubideen gainean hornikuntza kate osoan zehar izaten dituzten ondorio txarrak identifikatu, prebenitu eta arintzeko eta haiei buruz kontuak emateko, Frantzian berriki egin den bezala<sup>17</sup>

<sup>17</sup> Adibide gisa, Frantzian 2017ko otsailaren 21ean onartutako legea ikusi: "Loi relative au devoir de vigilance des sociétés mères et des entreprises donneuses d'ordre", [http://www.assembleenationale.fr/14/dossiers/devoir\\_vigilance\\_entreprises\\_donneuses\\_ordre.asp](http://www.assembleenationale.fr/14/dossiers/devoir_vigilance_entreprises_donneuses_ordre.asp)

**Egileak:** Francesco Gesualdi (CNMS) eta Deborah Lucchetti (FAIR)

**Ikerketa taldea:** Devi Sacchetto (Paduako Unibertsitateko Soziologiako irakasle elkartua), Francesca Alice Vianello, Giulia D'Odorico, Alberto Gubitta eta Silvia Segalla lankidetzarekin. Veronica Redini (Modenako Unibertsitateko Migrazioen Antropologiako irakaslea). Sara Farolfi (freelance kazetaria) Bettina Musiolek (Entwicklungspolitisches Netzwerk Sachsen-go eta Arropa Garbia Kanpainako koordinatzailea Europa ekialdeko herrialdeetan) eta Miodrag Pantovic (abokatua eta lan legerian espezialista)

**Estatistikak:** Pietro Guarnieri

**Txostenaren berrikuspena:** Daniela Kistler, Jivca Marinova, Stefan Grasgruber-Kerl eta Dominique Muller

**Diseinua:** Yoge Design Sensibile

**Maketazioa:** Concepte Gràfic

**Euskarazko itzulpena:** Karrikiri

**Euskarazko edizioa:** Alba Trepas - SETEM Federazioa

**Argitaratze data:** 2017ko iraila



Campanya  
Roba Neta  
Clean Clothes  
Campaign



Aldatu Zure Zapatak Europako 15 eta Asiako 3 erakunde osatzen duten partzuergo bat da. Guk uste dugu oinetako hornikuntza globalaren kateko langileek soldata duin bat eta lan baldintza seguruak izateko eskubidea dutela eta kontsumitzaileek produktu seguruak eta beren zapaten ekoizpenean gardentasuna izateko eskubidea dutela.



Txosten hau Europako Batasunaren finantza laguntzarekin egin da. Dokumentu honen edukien erantzukizuna Aldatu zure zapatak-eri dagokio soilik eta ez da inola ere Europako Batasunaren jarrera adierazten dutela iritzi behar.